



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2019ko ekainaren 18a

66. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Kontseiluari buruzko 2018ko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren 2018ko Kontuei buruzko aholku-txostena, Kontuen Ganberak egina (11. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- 3/2019 Foru Lege-dekretua, ekainaren 12koa, kreditu-gehigarria ematen duena bakarrik dauden adingabe atzerritarren etorrerari erantzuteko. Batzorde Iraunkorrek baliozkotu du (22. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Kontseiluari buruzko 2018ko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Batzorde Iraunkorark, 2019ko ekainaren 14an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako Kontseiluari buruzko 2018ko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Kontseiluari buruzko 2018ko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Nafarroako Kontseiluaren 2018ko ekitaldiko urteko kontuei buruzko iritzia (5. or.).
 - II.1. Auditoretza finantzarioko iritzia (6. or.).
 - II.2. Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia (6. or.).

Eranskina. Nafarroako Kontseiluaren 2018ko urteko kontuen laburpena (7. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Kontseilua Nafarroako Foru Komunitateko organo aholku-emaile gorena da. Bere eginkizunen jardunean, Nafarroako Kontseiluak Espainiako Konstituzioa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa eta gainerako ordenamendu juridiko guztia betetzen dela begiratuko du.

Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2019rako jarduketa-programari jarraituz, Nafarroako Kontseiluaren 2018ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditu. Honako hauek osatuta daude kontu horiek: aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua, ondare garbiaren aldaketaren egoera-orria eta eskudiruaren fluxuaren egoera-orria eta oroitidazkia.

Fiskalizazio finantzarioaren helburua da iritzia ematea honako honi buruz: ea Nafarroako Kontseiluaren urteko kontuek irudi zehatza erakusten duten alderdi esanguratsu guztiei buruz, hots, ondareari, aurrekontuaren likidazioari eta 2018ko abenduaren 31ko finantza-egoerari buruz, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei buruz ere, betiere aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezketasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Nafarroako Kontseiluak egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2018ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Honako hauek osatzen dute, funtsean, Nafarroako Kontseiluari 2018an aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

- 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa.
- Nafarroako Kontseiluari buruzko ekainaren 9ko 8/2016 Foru Legea.
- 90/2000 Foru Dekretua, otsailaren 28koa, Nafarroako Kontseiluaren Antolamendu eta Jardunbidearen Erregelamendua onesten duena.
- 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, eta 13/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoari buruzkoa.
- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- 20/2017 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra, apirilaren 13ko EHA/1037/2010 Aginduaren bidez onetsia.

Nafarroako Kontseiluak autonomia organiko eta funtzionala du bere jardueretan aritzeko. Haren aurrekontua Nafarroako Aurrekontu Orokorretan jasotzen da aurrekontu-programa independente gisa, eta kudeaketa ekonomiko eta aurrekontukoa Nafarroako Ogasun Publikoa arautzen duten printzipio eta arauen arabera da.

Nafarroako Kontseilua bost kidek osatzen dute, izen aitortua dutenak eta gutxienez ere hamabost urteko lanbide-esperientzia izan eta nafar izaera politikoa daukaten juristen artean izendatuak. Kontseiluko kideak independenteak eta aldaezinak dira. Zortzi urteko eperako izendatuko dira eta ezin izanen dira berriz hautatuak izan.

Kontseiluko gobernu- eta erabaki-organoa Osoko Bilkura da, kontseiluko kide guztiek osatua. Kontseiluko kideek hautatzen dituzte lehendakaria eta idazkaria.

2018ko ekitaldiko datu nabarmen gisa, honako hauek aipa daitezke:

- Aitortutako betebeharrak 282.301 euro egin dute, eta betetze-maila % 63koa izan da. 2017an, betebeharrak 295.906 eurokoak izan ziren.

- Kontseiluak 2018an gastatutako 100 euro bakoitzetik honako helburu hauetarako erabili da euro bakoitza, eta honakoen bidez finantzatu da:

Gastuaren izaera	Diru-kopurua	Finantzaketa-iturria	Diru-kopurua
Langileak	51	Transferentzien ondoriozko diru-sarrerak	100
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	43		
Inbertsioak	6		
	100		100

- Aitortutako eskubideek 390.218 euro egin dute, eta haien betetze-maila % 95ekoa izan da. Diru-sarrera horiek Nafarroako Gobernuarengandik jasotako transferentzietatik heldu dira; horietatik, 372.539 euro funtzionamendu-gastuak finantzatzera bideratutako transferentzia arruntak dira, eta 17.679 euro, berriz, inbertsio-gastuetara bideratutako transferentziak.

- Nafarroako Kontseiluak, arau indardunari jarraituz, 107.917 euro itzuliko dizkio Foru Ogasunari:

Diru-sarrerak, guztira	390.218
Gastuak, guztira	282.301
Aurrekontuko superabita	107.917
Foru Ogasunari itzuli beharrekoa, guztira	107.917

- Nafarroako Kontseiluaren 2018ko plantilla organikoa bi lanpostuk osatuta zegoen: legelari bat, funtzionarioa (lanpostua hutsik gabe) eta lehendakariaren idazkari bat, zeina izendapen askeko behin-behineko langilea baita. 2018ko abenduaren 31n, Nafarroako Kontseiluan bi langilek egiten dute lan: legelari bat, zerbitzu eginkizunetan dagoen Nafarroako Gobernuko funtzionarioa, eta lehendakariaren idazkari bat.

- 2018an, Nafarroako Kontseiluak 40 irizpen egin ditu; 2017an, berriz, 53 egin zituen. Nafarroako Kontseiluaren ordainsari-ereduak ez du biltzen haren kideen profesionalizatzeari. Kalte-ordain batzuk jasotzen dituzte txostenen eta irizpenen egile gisa parte hartzeagatik, eta dieta-sistema bat dute bilere-tarako bertaratzeak ordaintzeko. 2018an, irizpen horiek egiteak 79.600 euroko kalte-ordainak eragin ditu, eta bertaratzeengatik dietek, berriz, 18.275 euro egin dute, 2017an baino ehuneko 20 gutxiago, irizpen gutxiago egin baitira.

Txostenak bi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenak gure iritzi finantzarioa eta legezkotasunaren betetzeari buruzkoa azaltzen du, Nafarroako Kontseiluaren 2018ko ekitaldiko urteko kontuei dagokio-nez. Txostenari eranskin bat gehitu diogu, urteko kontuen laburpen batekin.

Azterketa lana 2018ko apirilean egin du lantalde batek, auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatuak. Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzara ere izan dute.

Jarduketa honen emaitzak Nafarroako Kontseiluko lehendakariari azaldu zitzaizkion, kasua bada egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkezteko, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legeko 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Jarritako epea iraganda, ez zen alegaziorik aurkeztu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Kontseiluko langileei, lan hau prestatzeko emandako laguntzarengatik.

II. NAFARROAKO KONTSEILUAREN 2018KO EKITALDIKO URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Nafarroako Kontseiluaren 2018ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honen eranskinean.

Nafarroako Kontseiluaren erantzukizuna

Nafarroako Kontseiluko lehendakaria da urteko kontuak egiteko ardua duena. Urteko kontu horiek, Osoko Bilkurari aurkeztuko dizkio, onets ditzan, halako moduz non irudi zehatza azalduko baitute Nafarroako Kontseiluaren ondareari, finantza-egoerari, emaitzei eta aurrekontu-betetzeari buruz, aplikatzen den finantza-informazio publikoko eta barne kontroleko arau-esparruari jarraituz, horren bidez presatu eta aurkeztu ahal izateko iruzur edo akatsen ondoriozko oker materialik ez duten urteko kontu batzuk.

Urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, Nafarroako Kontseiluko lehendakariak bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzen den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontroleko sistemak ezarri beharko ditu.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea urteko kontuei buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz.

Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera, ISSAI-ESen ezarritakoak, eta, batez ere ISSAI-ES 200 delakoa aplikatu dugu, fiskalizazio finantzarioei buruzkoa, bai eta ISSAI-ES 400 delakoa ere, betetzearen gaineko fiskalizazioei buruzkoa. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta lanaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: urteko kontuetan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko urteko kontuetan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak fiskalizatutako ekitaldian zehar betetzeari buruz ere.

Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak urteko kontuak egin ditzan eta legezkotasuna betetzen dela bermatzeko garrantzitsua baita— inguruabarren arabera auditoretza-prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez.

Azterketa honek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta zuzendaritzak egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta urteko kontuen aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia biltzen du finantza-auditoriari eta legezkotasuna betetzeari buruzko iritzitari eusteko.

II.1. AUDITORETZA FINANTZARIOKO IRITZIA

Gure iritziz, 2018ko ekitaldiko urteko kontuek, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten dute, Nafarroako Kontseiluaren ondareari eta finantza-egoerari dagokienez 2018ko abenduaren 31n, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuen inguruko printzipio eta irizpideei jarraituz.

II.2 LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, Nafarroako Kontseiluaren 2018ko ekitaldiari buruzko urteko kontuetan jasotako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore M^a Carmen Azcona Díez de Ulzurrun andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2019ko ekainaren 11n

Lehendakaria: Asunción Olaechea Estanga

ERANSKINA. NAFARROAKO KONTSEILUAREN 2018KO URTEKO KONTUEN LABURPENA**1. 2018ko aurrekontuaren likidazioa****Diru-sarrerak, kapituluz kapitulu**

	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako eskubideak	Kobrantzak
4. Transferentzia arruntak	418.280	0	418.280	372.539	372.539
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	44	0	44	0	0
7. Kapital-transferentziak	28.000	0	28.000	17.679	0
Diru-sarrerak, guztira	446.324	0	446.324	390.218	372.539

Gastuak, kapituluz kapitulu

	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako betebeharrak	Ordainketak
1. Langile-gastuak	197.954	0	197.954	143.794	143.794
2. Zerbitzuak eta ondasun arruntak erostea	220.370	0	220.370	120.828	120.828
6. Inbertsio errealak	28.000	0	28.000	17.679	17.679
Gastuak, guztira	446.324	0	446.324	282.301	282.301

2. 2018ko aurrekontu-emaizta

Kontzeptuak	2018				2017			
	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak garbiak	Doikuntzak	Aurrekontu-emaizta	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak garbiak	Doikuntzak	Aurrekontu-emaizta
a. Eragiketa arruntak	372.539	264.622		107.917	371.743	295.108		76.635
b. Kapital-eragiketak	17.679	17.679		0	798	798		0
c. Merkataritza-eragiketak	0	0		0	0	0		0
1. Eragiketa ez-finantzarioak, guztira (a+b+c)	319.218	282.301		107.917	372.541	295.906		76.635
d. Finantza-aktiboak	0	0		0	0	0		0
e. Finantza-pasiboak	0	0		0	0	0		0
2. Finantza-eragiketak, guztira (d+e)	0	0		0	0	0		0
I. Ekitaldiko aurrekontuaren emaitza (I=1+2)	319.218	282.301		107.917	372.541	295.906		76.635
Doikuntzak								
3. Atxiki gabeko diruzaintza-gerakinez finantzatuta gastatutako kredituak			0				0	
4. Ekitaldiko finantzaketa desbideratze negatiboak			0				0	
5. Ekitaldiko finantzaketaren desbideratze positiboak			0				0	
II. Doikuntzak, guztira (II=3+4+5)			0				0	
Aurrekontu-emaizta doitu (I+II)				107.917				76.635

3. Diruzaintzako gerakina 2018ko abenduaren 31n

Osagaiak	2018	2017
1. (+) Funts likidoak	97.386	87.109
2. (+) Kobratzeko dauden eskubideak	17.679	0
(+ Ekitaldiko aurrekontutik	0	0
(+ Aurrekontu itxietatik	0	0
(+ Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	0	0
(+ Merkataritzako eragiketetatik	0	0
3. (-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	7.148	10.474
(+ Ekitaldiko aurrekontutik	0	0
(+ Aurrekontu itxietatik	0	0
(+ Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	7.148	10.474
(+ Merkataritzako eragiketetatik	0	0
4. (+) Aplikatzeko dauden kontu-sailak	0	0
(+ Eginiko kobrantzak, behin betikoz aplikatzeko daudenak	0	0
(+ Eginiko ordainketak, behin betikoz aplikatzeko daudenak	0	0
I. Diruzaintzako gerakina, guztira (1+2-3+4)	107.917	76.635
II. Gehiegizko finantzaketa atxikia	0	0
III. Kobratzen zailak diren saldoak	0	0
IV. Atxiki gabeko diruzaintza gerakina= (I-II-III)	107.917	76.635

4. 2018ko abenduaren 31ko balantzea

Jardunean	2018	2017
Ibilgetu garbia	19.300	3.224
Altzariak eta tresneria	1.142	1.712
Informazioa prozesatzeko tresneria	479	1.511
Irudi korporatiboa	17.679	0
Aktibo zirkulatuzailea	115.065	87.109
Diruzaintza	97.386	87.109
Epe laburreko zordunak	17.679	-
Aktiboa, guztira	134.364	90.333

Garbia eta pasiboa	2018	2017
Ondare garbia	127.217	79.859
Ekitaldiko emaitza	107.917	76.635
Beste ondare-gehikuntza batzuk, emaitzei egozteke daudenak	19.300	3.224
Epe laburreko hartzekodunak	7.148	10.474
Aurrekontukoak ez diren bestelako hartzekodunak		
Foru ogasun publikoa, PFEZa dela eta	6.148	10.474
Ogasun publikoa, 2017ko gerakina itzultzeagatik	1.000	
Garbia eta pasiboa, guztira	134.365	90.333

5. 2018ko emaitzen kontua

	2018	2017		2018	2017
Langile-gastuak	143.794	147.513	Diru-sarrera finantzarioak	0	0
Kanpoko lanak, hornidurak eta zerbitzuak	120.828	147.595	Transferentzia arruntak	372.539	371.743
Amortizazioa	1.603	1.603	Diru-laguntzen emaitzen egozpena. Ibilgetua	1.603	1.603
<i>Aurrekia (emaitza positiboa)</i>	107.917	76.635			
Guztira	374.142	373.346	Guztira	374.142	373.346

6. 2018ko ondare garbian izandako aldaketan egoera-orria

	Sortutako ondarea	Bestelako ondare-gehikuntzak	Guztira
Amaierako ondare garbia, 2017	76.635	3.224	79.859
Ekitaldiko aldeak	31.282	16.076	47.358
Ekitaldian aitortutako diru-sarrerak eta gastuak	107.917	-1.603	
Jabea den entitatearekin egindako eragiketak	-76.635		
Ondare garbian izandako beste alde batzuk		17.679	
Amaierako ondare garbia, 2018	107.917	19.300	127.217

7. 2018ko eskudiru-fluxuen egoera-orria

	2018	2017
I. Kudeaketa-jardueretako eskudiru-fluxuak		
A) Kobrantzak	247.020	247.818
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	247.020	247.818
Kobratutako interesak eta dibidenduak	0	20
Beste kobrantza batzuk	-	-
B) Ordainketak:	-143.429	-165.118
Hornidurak	40.280	42.943
Beraratze-dietak eta kontseilarien irizpenengatiko ordainak	73.518	98.109
Beste ente publiko batzuen kontura bildutako baliabideen kudeaketa	29.631	24.067
Ordaindutako interesak	-	-
<i>Kudeaketa-jardueretako eskudiru-fluxu garbiak (A+B)</i>	<i>103.591</i>	<i>82.700</i>
II. Inbertsio-jardueretako eskudiru-fluxuak		
C) Kobrantzak:		
Inbertsio errealeen salmenta		
Finantza-aktiboen salmenta		
D) Ordainketak:	-17.679	-798
Inbertsio errealeen erosketa	17.679	798
Finantza-aktiboen erosketa		
<i>Inbertsio-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (C+D)</i>	<i>-17.697</i>	<i>-798</i>
III. Finantzaketa-jardueren eskudiru-fluxuak		
E) Ondarean izandako gehikuntzak		
Ondareari egindako ekarpenak		
F) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari egindako ordainketak	-75.635	-75.214
Ekarpenen itzulketa eta emaitzen banaketa	75.635	75.214
<i>Finantzaketa-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (E+F)</i>	<i>-75.635</i>	<i>-75.214</i>
VII. Eskudiruaren handitze/gutxitze garbia	10.277	6.688
Eskudirua ekitaldiaren hasieran	87.109	80.421
Eskudirua ekitaldiaren amaieran	97.386	87.109

Nafarroako Parlamentuaren 2018ko Kontuei buruzko aholku-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Batzorde Iraunkorark, 2019ko ekainaren 14an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako Parlamentuaren 2018ko Kontuei buruzko aholku-txostena egin du, Nafarroako Parlamentuaren erregelamendu ekonomiko-finantzarioaren 24.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Parlamentuaren 2018ko Kontuei buruzko aholku-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (12. or.).

II. Nafarroako Parlamentuaren 2018ko ekitaldiko urteko kontuen aurreproiektuari buruzko iritzia (14. or.).

II.1. Auditoretza finantzarioko iritzia (15. or.).

II.2. Legezkotasuna betetzeari buruzko iritzia (15. or.).

Eranskina. Nafarroako Parlamentuaren 2018ko ekitaldiko urteko kontuen laburpena (16. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2019ko martxoaren 11n hartutako Erabakia betez eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak ezartzen duenarekin bat etorritik, Parlamentuaren 2018ko ekitaldiko urteko kontuei buruzko aurreproiektuaren gaineko txosten hau egin dugu.

Kontuen Ganberak Nafarroako Parlamentuaren 2018ko ekitaldiko urteko kontuak aztertu ditu. Honako hauek osatuta daude kontu horiek: aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoaren kontua, ondare garbiaren aldaketaren egoera-orria, esku-diruaren fluxuaren egoera-orria eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazkia.

Fiskalizazio finantzarioaren helburua da iritzia ematea honako honi buruz: ea Nafarroako Parlamentuaren urteko kontuek irudi zehatza erakusten duten alderdi esanguratsu guztiei buruz, hots, ondareari, aurrekontuaren likidazioari eta 2018ko abenduaren 31ko finantza-egoerari buruz, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei buruz ere, betiere aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezketasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Parlamentuak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2018ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Honako hauek osatzen dute, funtsean, Parlamentuari 2018an aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

- Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bategina, Mahaiak 2011ko irailaren 12an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.
- Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua, Parlamentuko Erregelamendu Batzordeak 1991ko martxoaren 20an onetsia.
- Nafarroako Parlamentuko Administrazioaren Antolaketari buruzko Erregelamendua, Mahaiak 1992ko azaroaren 2an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.
- Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendu Ekonomiko-finantzarioa, Parlamentuko Mahaiak 2000ko maiatzaren 22an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.
- 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, eta 13/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoari buruzkoa.
- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- 20/2017 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- Parlamentarien ordainsariei buruzko arauak, Parlamentuko Batzorde Iraunkorren Mahaiak 2007ko ekainaren 15ean hartutako Erabakiaren bidez onetsiak, eta haien 2011ko eta 2015eko aldaketak.
- Mahaiaren 2018ko urtarrileko erabakiak, Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariei, foru parlamentarien ordainsariei eta Nafarroako Parlamentuko langile funtzionarioen eta aldi baterako kontratudun langileen ordainsariei buruzkoak.
- Talde parlamentarioen ordainsariei buruzko arauak, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 1989ko maiatzaren 15ean onetsiak. Mahaiaren 2018ko urtarrileko erabakia, talde parlamentarioentzako diru-laguntzak arautzeari buruzkoa.
- Mahaiaren 2017ko abenduko erabakia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen plantilla organikoa aldatzeari buruzkoa.

Txosten honek aztergai duen urteko kontuen aurreproiektua 2019ko martxoaren 5ean egin zuen Nafarroako Parlamentuko kontu-hartzaileak, eta 2019ko martxoaren 14an eskuratu zitzaizgun.

Nafarroako Parlamentuaren aurrekontua Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartuta dago, eta haren kontuak Nafarroako urteko kontuen atal bat dira.

2018ko ekitaldiko datu nabarmen gisa, honako hauek aipa daitezke:

- Aitorturiko betebeharrak 11,52 milioi euro egiten dute, eta haien betetze-maila ehuneko 79koa izan da. 2017an, betebeharrak 11,02 milioi eurokoak izan ziren.
- Aitortutako eskubideek 13,81 milioi euro egin dute, eta haien betetze-maila % 95ekoa izan da.
- Parlamentuak 2018an gastatutako 100 euro bakoitza honako helburu hauetarako erabili da, eta honakoen bidez finantzatu da:

Gastuaren izaera	Diru-kopurua	Finantzaketa-iturria	Kopurua
Langileak	58	Transferentzien ondoriozko diru-sarrerak	99
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	12	Bestelako diru-sarrerak	1
Transferentzien bidezko gastuak	26		
Beste gastu batzuk	4		
	100		100

- Hurrengo koadroan agertzen dira Nafarroako Parlamentuaren 2018rako plantilla organikoa, Mahaiak 2018ko ekainaren 11n onetsia, bai eta abenduaren 31n egiazki ari ziren langileak ere:

Langile mota	Plantilla organikoa	Langileak, abenduaren 31n
Funtzionarioak	56	41
Behin-behinekoak	16	16
Administrazio-kontratadun langileak		15
Guztira	72	72

- Parlamentuak, arau indardunari jarraituz, 2,77 milioi euro itzuliko dizkio Foru Ogasunari.

Txostenak bi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenak gure iritzia finantzarioa eta legezketasunaren betetzeari buruzkoa azaltzen ditu, Parlamentuaren 2018ko ekitaldiko urteko kontuen aurreproiektuari dagokionez. Txostenak eranskin bat badauka, Nafarroako Parlamentuaren urteko kontuen laburpen batekin.

Azterketa lana 2019ko ekainean egin du lantalde batek, auditoriako bi teknikaririk eta auditore batek osatuak. Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzak ere izan dute.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Parlamentuko langileei, lan hau prestatzeko emandako laguntzarengatik.

II. NAFARROAKO PARLAMENTUAREN 2018ko EKITALDIKO URTEKO KONTUEN AURREPROIEKTUARI BURUZKO IRITZIA

Nafarroako Parlamentuaren 2018ko ekitaldiko urteko kontuen aurreproiektua aztertu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honekin batera doan eranskinean.

Nafarroako Parlamentuaren erantzukizuna

Parlamentuko Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak urteko kontuen aurreproiektua eginen du eta legegari nagusiari aurkeztuko dio, azken horrek Parlamentuko Mahaiari helarazi eta Eledunen Batzarrak onespina eman diezaion. Aurreproiektu horrek irudi zehatza eman beharko du Nafarroako Parlamentuaren ondareari, finantza-egoerari, emaitzei eta aurrekontu-betetzeari buruz, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoko eta barne kontroleko arau-esparruari jarraituz, horren bidez prestatu eta aurkeztu ahal izateko iruzur edo akatsen ondoriozko oker materialik ez duten urteko kontu batzuk.

Urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontroleko sistemak ezarri beharko ditu.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea urteko kontuen aurrekontuari buruz eta gure berri-kuspenean oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz.

Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera, ISSAI-ESen ezarritakoak, eta, batez ere ISSAI-ES 200 delakoa aplikatu dugu, fiskalizazio finantzarioei buruzkoa, bai eta ISSAI-ES 400 delakoa ere, betetzearen gaineko fiskalizazioei buruzkoa. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta lanaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: urteko kontuetan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko urteko kontuetan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak fiskalizatutako ekitaldian zehar betetzeari buruz ere.

Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak urteko kontuak egin ditzan eta legezkotasuna betetzen dela bermatzeko garrantzitsua baita— inguruabarren arabera auditoretza-prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez.

Azterketa honek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta zuzendaritzak egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta urteko kontuen aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia biltzen du finantza-auditoriari eta legezkotasuna betetzeari buruzko iritziari eusteko.

II.1. AUDITORETZA FINANTZARIOKO IRITZIA

Gure iritziz, 2018ko ekitaldiko urteko kontuen aurreproiektuak, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten du, Nafarroako Parlamentuaren ondareari eta finantza-egoerari dagokienez 2018ko abenduaren 31n, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuen inguruko printzipio eta irizpideei jarraituz.

II.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, Nafarroako Parlamentuaren zorra 2018ko ekitaldiari buruzko urteko kontuen aurreproiektuan jasotako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore M^a. Carmen Azcona Díez de Ulzurrun andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2019ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Asunción Olaechea Estanga

ERANSKINA. NAFARROAKO PARLAMENTUAREN 2018KO EKITALDIKO URTEKO KONTUEN LABURPENA**1. 2018ko aurrekontuaren betetzea****Gastuak, kapituluz kapitulu**

Kontzeptua	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko kredituak	Aitortutako betebehargarbiak	Betetzearen ehunekoa	Ordainketak	Ordainketen ehunekoa
1. Langileak	7.335.270	0	7.335.270	6.739.224	92	6.739.224	100
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	2.231.360	52.370	2.283.730	1.343.148	59	1.244.672	93
4. Transferentzia arruntak	3.105.570	0	3.105.570	3.026.065	97	2.734.579	90
6. Inbertsioak	835.010	758.760	1.593.770	382.185	24	189.849	50
8. Aktibo finantzarioak	57.795	0	57.795	32.468	56	32.468	100
9. Pasibo finantzarioak	138.076	0	138.076	0	0	0	0
Gastuak, guztira	13.703.081	811.130	14.514.211	11.523.090	79	10.940.792	95

Diru-sarrerak kapituluz kapitulu

Kontzeptua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubide garbiak	Betetzearen ehunekoa	Diru-bilketa garbia	Kobrانتzen ehunekoa
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.860	0	2.860	105.019	3.672	105.019	100
4. Transferentzia arruntak	12.669.329	0	12.669.329	12.669.329	100	12.669.329	100
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	10	0	10	0	0	0	-
7. Kapital-transferentziak	1.000.275	0	1.000.275	1.000.275	100	1.000.275	100
8. Aktibo finantzarioak	30.012	811.130	841.142	36.901	4	36.901	100
9. Pasibo finantzarioak	595	0	595	0	0	0	-
Diru-sarrerak, guztira	13.703.081	811.130	14.514.211	13.811.524	95	13.811.524	100

2. 2018 ekitaldiko aurrekontuaren emaitza**(Zenbatekoak, eurotan)**

Kontzeptuak	2018			2017		
	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak	Aurrekontuaren emaitza	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak	Aurrekontuaren emaitza
a. Eragiketa arruntak (1. kap. 5. kapitulura)	12.774.348	11.108.437	1.665.910	12.328.048	10.844.449	1.483.598
b. Kapitaleko eragiketa (6. eta 7. kapituluak)	1.000.275	382.185	618.090	1.262.783	130.460	1.132.324
1. Eragiketa ez-finantzarioak guztira (a+b)	13.774.623	11.490.622	2.284.001	13.590.831	10.974.909	2.615.922
c. Finantza-aktiboak (8. kapitulua)	36.901	32.468	4.433	38.338	41.971	-3.633
d. Finantza-pasiboak (9. kapitulua)	0	0	0	10.148	2.327	7.821
2. Finantza-eragiketak, guztira (c+d)	36.901	32.468	4.433	48.486	44.298	4.188
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaitza (1+2)	13.811.524	11.523.090	2.288.434	13.639.317	11.019.207	2.620.110
Doikuntzak						
3. Gehitutako kredituak finantzatzeko funtsak			811.130			111.057
4. Ekitaldiko finantzaketaren desbideratze negatiboak			-			-
5. Ekitaldiko finantzaketaren desbideratze positiboak			333.487			811.130*
II. Doikuntzak guztira (3+4-5)			477.643			700.073
Aurrekontu-emaitza doitua (I+II)			2.766.077			1.920.037

*2017ko kontuetan ez zen doikuntza hau egin; alderaketa egiteko gehitu dugu.

3. 2018ko diruzaintza-gerakina

Osagaiak	2018	2017
1. Funts likidoak	3.780.306	2.931.899
2. (+) Kobratzeko dauden eskubideak	0	0
3. (-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	3.446.819	2.120.769
(+) ekitaldiko aurrekontutik	582.298	95.407
(+) aurrekontukoak ez diren eragiketenak	2.864.521	2.025.362
I. Diruzaintza-gerakina, guztira (1+2-3)	333.487	811.130
II. Gehiegizko finantzaketa atxikia	333.487	811.130
III. Kobratzen zailak diren saldoak	0	0
IV. Atxiki gabeko diruzaintza-gerakina (I-II-III)	0	0

4. 2018ko abenduaren 31ko balantzea

(emaitza aplikatu ostean)

	2018	2017
AKTIBOA, GUZTIRA	20.051.927	19.596.787
A) Aktibo ez-korrontea	16.251.808	16.646.111
I. Ibilgetu ukiezin garbia	151.423	179.199
3. Aplikazio informatikoak	150.752	177.742
2060-2806. Aplikazio informatikoak	150.752	177.742
5. Bestelako ibilgetu ukiezina	671	1.457
2090-2809. Bestelako ibilgetu immateriala	671	1.457
II. Ibilgetu material garbia	16.068.421	16.429.479
2. Eraikinak	13.782.855	14.335.276
2110-2811. Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	13.782.255	14.335.276
5. Bestelako ibilgetu materiala	2.071.702	2.073.028
2140-2814. Makineria eta tresnak	210.987	231.134
2150-2815. Garraio-osagaiak	0	0
2160-2816. Altzariak eta tresneria	31.557	44.277
2170-2817. Informazio-prozesuetako ekipoa	99.644	109.629
2190-2819. Bestelako ibilgetu materiala	1.729.514	1.687.988
2340-Bidean den ibilgetua	213.864	21.175
V. Epe luzeko inbertsio finantzarioak	31.964	37.433
4. Bestelako finantza-inbertsioak	31.964	37.433
2540. Epe luzeko maileguak	31.964	37.433
B) Aktibo arrunta	3.800.119	2.950.676
III. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	0	0
3. Administrazio publikoak	0	0
5441.Osasun-laguntzako maileguen aurrerakinak	0	0
V. Epe laburreko finantza-inbertsioak	19.813	18.777
4. Bestelako finantza-inbertsioak	19.813	18.777
5440-534. Epe laburreko maileguak, aurrerakinak	19.813	18.777
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	3.780.306	2.931.899
1. Kutxa	1.266	1.233
2. Bankuak eta kreditu-erakundeak	3.779.040	2.930.666
ORDENA-KONTUAK	2.341	3.927
Abalak eta bermeak	2.341	3.927

	2018	2017
PASIBOA, GUZTIRA	20.051.927	19.596.787
A) Ondare garbia	16.594.576	17.465.486
I. Ekarririkako ondarea	15.499.196	16.185.241
1000. Ondarea	8.794.911	9.480.956
1001-1030. Lagapen gisa jasotako ondarea	0	0
1001-1070. Atxikipen gisa jasotako ondarea	6.704.285	6.704.285
II. Sortutako ondarea	333.487	811.130
2. Ekitaldiko emaitzak	333.487	811.130
1291. Atxikitako funtsak, gehitzeko daudenak	333.487	811.130
IV. Emaitzei aplikatzekoak zaizkien bestelako ondare-gehikuntzak	761.893	469.115
1300. Diru-laguntzak	761.893	469.115
B) Pasibo ez-korrontea	10.532	10.532
1800. Epe luzeko fidantzak	10.532	10.532
C) Pasibo korrontea	3.446.819	2.120.769
I. Epe laburreko hornikuntzak. Epe laburreko zorrak.	0	0
II. Epe laburreko zorrak	0	0
4. Bestelako zorrak	0	0
5600-5200. Epe laburrean jasotako fidantzak eta gordailuak	0	0
IV. Hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	3.446.819	2.120.769
1. Kudeaketa-eragiketengatiko hartzekodunak	582.298	95.407
400. Aitortutako betebeharren hartzekodunak, aurtengo aurrekontuan	582.298	95.407
3. Administrazio publikoak	2.864.521	2.025.362
4750. Ogasun Publikoa zordun, PFEZa dela eta	0	74
4751. Ogasun Publikoa Eskubide pasiboengatiko zorduna	0	0
4752. Ogasun Publikoa Erabilera bereziaren hartzekodun	0	0
4760. Ogasuna hartzekodun, kredituen itzulketak direla eta	2.766.077	1.920.038
4770. Gizarte Segurantzza hartzekodun	98.444	105.250
ORDENA-KONTUAK	2.341	3.927
Abalak eta bermeak	2.341	3.927

5. 2018ko ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontua**Zenbatekoa (eurotan)**

	2018	2017
2. Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	13.376.827	13.490.778
a) Ekitaldikoak	13.376.827	13.490.778
a.2) Transferentziak	13.376.827	13.490.778
7500.Nafarroako Gobernuaren kapital-transferentziak	707.498	1.209.970
7510.Nafarroako Gobernuaren transferentzia arruntak	12.669.329	12.280.808
3. Salmenta garbiak eta zerbitzu-emateak	0	308
7000.Argitalpenetako salmentak	0	308
6. Kudeaketa arrunteko beste diru-sarrera batzuk	105.019	46.931
7730.Itzulketak	97.123	49.931
7770. Beste diru-sarrera batzuk	7.896	0
A) Kudeaketa arrunteko diru-sarrerak, guztira	13.481.846	13.538.017
8. Langile-gastuak	6.772.230	6.620.410
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	5.732.614	5.598.349
6400.Soldatak eta lansariak	2.583.570	2.608.277
6401.Behin-behineko langileen lansariak	522.283	492.731
6410.Funtzionarioen lansariak	2.396.985	2.269.737
6411.Langile kontratatuen lansariak	156.857	156.466
6402.Parlamentarien dietak eta garraioak	7.682	10.172
6412.Bestelako dietak eta garraioak	7.164	7.291
6449.Langileen beste gizarte-gastu batzuk	41.848	36.432
6409.Parlamentarien beste gizarte-gastu batzuk	16.225	17.243
b) Gizarte-zamak	1.039.616	1.022.061
6420.Enplegu-emaiaren kargura dagoen Gizarte Segurantza	1.039.616	1.022.061
9. Egindako transferentziak eta emandako diru-laguntzak	3.026.066	2.990.978
6500. Transferentzia arruntak	2.882.067	2.877.102
6510-Diru-laguntzak	143.999	113.876
11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	1.310.142	1.233.061
a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	880.948	829.318
c) Beste batzuk	429.194	403.743
12. Ibilgetuaren amortizazioa	771.019	746.802
B) Kudeaketa arrunteko gastuak, guztira	11.879.457	11.591.251
I. Kudeaketa arruntaren emaitza (aurrezkia edo desaurrezkia) (A-B)	1.602.389	1.946.766
13. Ibilgetuaren galerak	0	0
II. Eragiketa ez-finantzarioen emaitza	1.602.389	1.946.766
15. Diru-sarrera finantzarioak	0	0
III. Finantza-eragiketen emaitzak	0	0
IV. Ekitaldiko emaitza garbia (aurrezkia edo desaurrezkia) (II+III)	1.602.389	1.946.766

6. 2018ko ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria

	Jarritako ondarea	Sortutako ondarea	Bestelako ondare-gehikuntzak	Guztira
A. Amaierako ondare garbia, 2017	16.185.241	811.130	469.115	17.465.486
B. Kontabilitate-irizpideetan izandako aldaketengatik eta akatsak zuzentzeko egindako doikuntzak	0	0	0	0
C. 2018ko hasierako ondare garbi doitua	16.185.241	811.130	469.115	17.465.486
D. 2018ko ondare garbiak izandako aldeak	-686.045	-477.643	292.777	-870.911
Ekitaldian aitortutako diru-sarrerak eta gastuak	0	333.487	292.777	626.264
Ondare garbian izandako beste alde batzuk	-686.045	-811.130	0	-1.497.175
Amaierako ondare garbia, 2018	15.499.196	333.487	761.892	16.594.575

7. 2018ko eskudiru-fluxuen egoera-orria

	2018	2017
I. KUDEAKETA-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK		
A) Kobrantzak:	13.392.438	13.527.486
2. Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	13.287.419	13.480.246
3. Argitalpenen salmenta	0	308
5. Kobratutako interesak eta dibidenduak	0	0
6. Beste kobrantza batzuk	105.019	46.932
B) Ordainketak:	12.740.799	12.758.126
7. Langile-gastuak	6.671.960	6.515.005
8. Egindako transferentziak eta emandako diru-laguntzak	2.734.579	2.990.978
10. Bestelako kudeaketa-gastuak	1.213.491	1.150.322
13. Beste ordainketa batzuk	2.120.769	2.101.821
Kudeaketa-jardueretako eskudiru-fluxu garbiak (+A-B)	651.639	769.360
II. INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK		
C) Kobrantzak:	36.901	38.338
3. Inbertsio-jardueretako beste kobrantza batzuk	36.901	38.338
D) Ordainketak:	222.317	159.843
4. Inbertsio errealean erosketa	189.849	117.872
6. Inbertsio-jardueretako beste ordainketa batzuk	32.468	41.971
Inbertsio-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+C-D)	-185.416	-121.505
III. FINANTZAKETA-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK		
E) Ondare-gehikuntzak	382.184	63.345
1300. Ibilgetu finantzarioa finantzatzeko diru-laguntzak	382.184	63.345
G) Finantza-pasiboen kobrantza	0	10.148
II) Finantza-pasiboen itzulketarako ordainketak	0	2.327
Finantzaketa-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (G+I+II)	382.184	71.166
VI. ESKUDIRUAREN ETA EKITALDIKO BALIOKIDE DIREN AKTIBO LIKIDOEN IGOERA/JAITSIERA GARBIA (I+II+III)	848.407	719.021
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren hasieran	2.931.899	2.212.878
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren bukaeran	3.780.306	2.931.899

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

3/2019 Foru Lege-dekretua, ekainaren 12koa, kreditu-gehigarria ematen duena bakarrik dauden adingabe atzerritarren etorrerari erantzuteko.

BATZORDE IRAUNKORRAK BALIOZKOTU DU

Nafarroako Parlamentuko Batzorde Iraunkorrek, 2019ko ekainaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. 2019ko ekainaren 14an Nafarroako Parlamentuko Batzorde Iraunkorrek onetsi zuen baliozkotzea 3/2019 Foru Lege-dekretua, ekainaren 12koa, kreditu-gehigarria ematen duena bakarrik dauden adingabe atzerritarren etorrerari erantzuteko. Foru Lege-dekretu hori 2019ko ekainaren 13ko 114. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hori argitara dadin agintzen dut.

Iruñean, 2019ko ekainaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

3/2019 Foru Lege-dekretua, ekainaren 12koa, kreditu-gehigarria ematen duena bakarrik dauden adingabe atzerritarren etorrerari erantzuteko

HITZAURREA

Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak noizean behin etortzen ziren lehen, baina orain esku hartzearen lehentasunezko kolektibo bat da haurrak babesteko sisteman.

Bakarrik dauden adingabe atzerritar asko etortzen ari dira Espainiara eta, zehazki, Nafarroara, eta horrek eragin handia du haurrak babesteko dugun sisteman. Izan ere, aurreikuspenek eta baliabideek gainezka egin dute babesgabezia edo babesgabetasun handian dauden haur eta nerabeen arretan.

Horregatik, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak nabarmendu

du ezinbestez eta premia baliabide gehiago jarri behar direla bakarrik egoteagatik entitate publikoen tutoretzan dauden adingabe atzerritarren premiak (fisikoak, psikikoak, sozialak eta emozionalak) asetzeko. Aurreikuspenen arabera, urte honen amaieran bakarrik dauden 300 adingabe atzerritar egonen dira Nafarroan; beraz, lehenbailehen eta larrialdiko prozeduraz lizitatu behar dira zaintza kudeatu beharreko egoitza-plaza gehiago, bai eta ingurune irekiko laguntza-plazak ere autonomia-prozesuetan.

2019ko gastu-aurrekontuan, "Asistentzia adingabekoentzat" izeneko 920008-93300-2600-231703 partidari, ez dago behar adinako finantziabiderik azaldutako premiak asetzeko.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua, bere lehen paragrafoan, ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta dagoen kreditua ezin bada handitu aipatutako foru legean jasotako xedapenen arabera, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari, kreditu-gehigarri bat ematekoa. Era berean, bigarren paragrafoan xedatzen du kreditu-gehigarria edozein gastu programatako beste kreditu erabilgarri batzuekin finantzatzen ahal dela, Parlamentuak zuzenketak direla-eta berariaz onetsitako kredituetatik datozenak barne.

Bestetik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21. artikulua, arabera, kasu berezi eta oso presakoetan, Nafarroako Gobernuak behin-behineko legezko xedapenak eman ahal ditu, foru lege-dekretu forma hartuko dutenak.

1. artikulua. Kreditu-gehigarria ematea.

3.000.000 euroko kreditu-gehigarria ematen da 2019ko ekitaldian “Asistentzia adingabekoentzat” izeneko 920008-93300-2600-231703 partidan, bakarrik egoteagatik entitate publikoen tutoretzan dauden adingabe atzerritarren premiak berehala asetzeko.

2. artikulua. Kreditu-gehigarriaren finantzaketa.

Kreditu-gehigarri honetako 1.400.000 euro indarrean dagoen gastu-aurrekontuko 920005-

93100-2600-231B04 partidan, “Zaharrentzako zentroen kudeaketa” izenekoan, dagoen kreditu erabilgarriaren kargura finantzatuko da, eta beste 1.600.000 euroak, “Zerbitzu pertsonalei erantzuteko laguntzak” izeneko 920004-93200-4809-231B02 partidaren kargura.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege-dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

